

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

131/2026 Foru Agindua, maiatzaren 21ekoa. Iraungitzat jotzea Zuiako Udaleko Landa Katastroko 3 poligonoko 620 lurzatiari dagokion Gillerna herriaren jabetzako "Kulukupadura" mendi publikoa mugatzeko eta mugarritzeko prozedura

Zuiako Udaleko Landa Katastroko 3 poligonoko 620 lurzatiari dagokion Gillerna herriaren jabetzako "Kulukupadura" mendi publikoa mugatzeko eta mugarritzeko prozedura Ingurumen zuzendariaren 2006ko otsailaren 28ko ebazpenaren bidez hasi zen, zeinaren bidez mendi publiko horren mugaketa egoera deklaratzeko erabaki baitzen, inolako murrizketa partikularrik ezarri gabe. Ebazpena Arabako Lurralde Historikoko Mendien Araubidea arautzen duen uztailaren 4ko 13/1986 Foru Arauaren babesean eman zen, hura baitzen prozedura hasi zenean aplikatu beharreko araudi sektoriala. Ediktuaren testua 2006ko martxoaren 8ko ALHAOn (28. zk.) argitaratu zen, eta honako hauei jakinarazi zitzaizkien: udalari, jabea den erakundeari eta pertsona partikular interesdun ezagunei, fisiko eta juridikoei.

Neurketa eta behin-behineko mugarritze lanak 2006ko maiatzaren 4an egin ziren, horretarako berariaz egindako aktan jasotzen den bezala, eta, era berean, zegokion erregistro topografikoa eta mendiaren planoak egin ziren.

Neurketa eta behin-behineko mugarritze lanak amaituta, eta Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauan jasotakoa betez –ordurako 13/1986 Foru Araua ordeztu zuen–, 2008ko urtarrilaren 14ko ALHAOn (6. zk.) argitaratu zen mugaketa eta mugarritze espedientearen jendakarean jartzeko aldia irekiko zela eta zegokion erreklamazio aldia irekiko zela.

Mendien Araudia onesten duen otsailaren 22ko 485/1962 Dekretuaren arabera, bi urteko epea zegoen prozeduraren esanbidezko ebazpena emateko, hura baitzen prozedura hastean aplikatu beharreko ordezkiko araudi sektoriala. Bi urte baino gehiago igaro dira, eta oraindik ez da ebazpenik eman; horrenbestez, prozedura iraungitzat joko da.

Gaur egun, aurreikusita dago berriro hastea Gillerna herriaren jabetzakoa den "San Fausto" izeneko onura publikoko 743 mendia mugatzeko prozedura, zeina iraungitzat jo baita Nekazaritza Sailako diputatuaren martxoaren 25eko 81/26 Foru Aginduaren bidez. Iraungitze adierazpen honekin, aukera ematen da prozedura berri horretan sartzeko Kulukupadura mendi publikoaren mugaketa eta mugarritzea eta haren onura publikoaren adierazpena.

Beraz, nahitaezko txostenak ikusita eta Arabako Foru Aldundiaren 2023-2027 legegintzaldirako sailak zehazten dituen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera (Diputatu Nagusiaren ekainaren 28ko 78/2024 Foru Dekretuak aldatua), honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.– Iraungitzat jotzea Zuiako Udaleko Landa Katastroko 3 poligonoko 620 lurzatiari dagokion Gillerna herriaren jabetzako "Kulukupadura" mendi publikoa mugatzeko eta mugarritzeko prozedura, zeina Ingurumen zuzendariaren 2006ko otsailaren 28ko ebazpenaren bidez hasi baitzen.

Bigarrena.– Ebazpen hau prozedurako interesdun guztiei jakinaraztea eta ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena.– Administrazio bidea amaitzen duen foru agindu honen aurka berraztertze-ko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio, nahi izanez gero, ebazpena eman zuen organoari berari, hilabeteko epean, jakinarazi ondorengo egunetik aurrera, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Administrazioarekiko Auzietarako Vitoria-Gasteizko Epai-tegian, bi hilabeteko epean, jakinarazi ondorengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 21a

Nekazaritza Saileko foru diputatua

NOEMI AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNANDEZ SARABIA